



Beasaingo udal aldizkaria

beasain

61 egunez egun

2014ko abendua


gaur  **biharko**

BEASAINGO PLAN OROKORRAREN
PARTE HARTZE PROZESUA



**Nondik gatozen, non gauden eta
nora goazen erabakitzeko unea**

2 hitzaurrea 3 berdintasuna 4 igartza 5 Sorkuntza lokalak 6-7 Plan Orokorra
8-9 euskara 10-11 laburrak 12 elkarrizketa



Elkarlanean eraiki

Sartu gara abenduan eta beraz, ia joan zaigu ekimen desberdinez jositako beste urte bat. Elkarre, eragile eta herritar desberdinekin lan egiteko saiakera egin dugu aurten ere, bide berriak irekitzen eta egonkortzen aritu gara.

Bertan dugu abenduaren 3a, Euskaren Nazioarteko Eguna, eta egun honen harira antolatutako diren ekintza eta ekitaldi desberdinak, baita liburu azoka eta mintzalagunaren ingurukoak ere; elkarlanean adibide dira guztiak. Ozen, euskaraz bizi nahi dugula adierazteko parada izango dugu beraz, beste behin ere.

Udaletik ez dugu urtea amaitu nahi parte hartzeko ohitura sustraitzen jarraitu gabe. Nola ba etorkizuneko Beasain antolatutako beasaindarren iritzirik eta ekarpenik gabe? Gure herrian zer, nola eta non egin daitezkeen finkatzera goaz. Beasain nolakoa izango den eta herritarrek nola biziko garen. Hausnartzea da *Gaur*

Biharko ekimenean egingo duguna. Martxan jarri dugun parte hartze prozesu honetan, etorkizuneko Beasain antolatzeko, herrian bizi garen guztien iritzia jasoko ditugu. Ez da diskurtso hutsa, martxan dagoen prozesua da, jendeak interes handia erakutsi du eta egun, beren ibilbidea duten mahai eta foroetan adibidez, burutu da prozesuaren aurkezpena eta ekarpen mordoak jaso dira. Ikastetxeetako lanketak ere hasi dira dagoeneko. Gure haurrek ere izango dute modua herriko errealitatea ezagutzeko, indarguneak eta ahulgune-

ak lantzeko eta Biharko Beasain nolakoa izango den pentsatzeko eta adierazteko.

Herritarren bizi eremuan eragin zuzena duten gai asko landuko ditugu elkarrekin, zer nolako Beasain eraiki eta izan nahiko genukeen ezagutuko dugu prozesu honekin eta dudarik ez izan, zuek zaretela benetako adituak. Beraz, badakizue, Beasaingo arazo eta aukerak aztertu eta etorkizunean nolako herria nahi dugun erabakitzeke unean gaude. Herritarrek egin behar dugu prozesu hau, ez galdu aukera.

Ya ha llegado diciembre y durante un año más hemos intentado trabajar junto con asociaciones, agentes sociales y ciudadanía, abriendo y estabilizando nuevos caminos.

El 3 de diciembre tendremos una nueva oportunidad para salir a la calle y expresar que queremos vivir en euskara.

Por otra parte, hemos abierto un nuevo proceso de participación para pensar en qué pueblo queremos vivir: *Gaur Biharko*. Para eso, trabajaremos los puntos fuertes y débiles de Beasain. Y para llevar a cabo este proceso, necesitamos tu participación. Podemos decidir el futuro de Beasain: hagámoslo juntos.

> inkesta Zer iritzi duzu Oriamendi kaleko birmoldaketetz?



Maria Jesus Cano

Nahiko azkar lan egiten dutela iruditzen zait. Gu hemen gertuan bizi gara eta etxera hauts asko iristen da, eta hotsa ere handia. Baina, tira, itxura ona hartzen ari da kalea eta onerako izango dela uste dut. Espaloiak izugarriak iruditzen zaizkit eta ez dakit lehen adina aparkaleku geratuko diren; gutxiago izango direnaren irudipena dut.



Lorenzo Nabas

Por ahora van bien, ya están trabajando. Pero, creo que estos huecos para farolas están mal puestos. En Beasain hay problemas de aparcamiento y poner las farolas en el espacio de los aparcamientos me parece un error: inhabilita el espacio para aparcar. Yo creo que sería mejor poner las farolas en la acera, porque así sí que hay espacio libre.



Santiago Jimeno

Oso gustura nago ondo geldituko delako eta merkatarioi, mesede egingo digula uste dut. Lanean ari dira gelditu gabe. Ustel daitezkeen produktuak ditugunok, harakinak eta nik batez ere, kalte dezentte izan ditugu eta jana bota beharrean egon gara, jende gutxiago datorrelako obregatik, eta oso gaizki pasa dugu. Gero hoberako izango da.



Berdintasunean hezten

Beasaingo 6 eta 12 urte bitarteko haurrak genero berdintasuna eta hezkidetzaz lantzen ari dira antzerkiaren laguntzaz. Beasain Institutuan ere gazteen prebentzio plana ari dira garatzen.

Ipuinak, txotxongiloak eta antzerkia lan tresnatzat hartuta, Beasaingo ikastetxeetako 6 eta 12 urte bitarteko 975 ikasle, genero berdintasuna eta hezkidetzaz lantzen ari dira egunotan. Legorretako Dar-Dar produkzioak-eko Iker eta Asier Zinkunegi ari dira proiektua aurrera eramaten.

Iker Zinkunegik adierazi duenez, lau helburu nagusi ditu egitasmoak. Bateatik, ikasgela bereko nesken eta mutilen artean talde lana eta harreman berdintasuna bultzatzea. Bestetik, indarkeria eta jazarpen existentari aurre hartuz, ikastetxeetan hezkidetzaz eta genero indarkeriaren prebentzioan laguntzea. Horrekin batera, aniztasunean, gizonen eta emakumeen eskubide eta aukera berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eredua bultzatu nahi dute. Era berean, ikasleei euren harremanetan berdintasunean eta errespetuan bizi izaten irakatsiz.

Beasain Institutuan

Aspalditxotik ari dira Beasain BHI ikastetxean Berdintasunaren alorrean lanean. Iazko ikasturtean, Hezkuntza Sailak eskaintako Berdintasuna eta Genero Indarkeriaren Prebentzioarako Planaren inguruko formazioa jaso eta 2014-2016 ikasturteetarako plana zehaztu zuten: sentsibilizazioa, diagnostikoa eta planaren ezarpena. Plana eskola komunitateko partaide

guztiei zuzendua dago: bereziki ikasleei, baina

baita irakasleei eta gurasoei ere. Era berean, ikastetxeko dokumentuak, espazioak eta irakas-materialak dituzte aztergai. Horrekin batera, elkarlanean ari dira Beasaingo Udaleko Berdintasun teknikariarekin.

Horrekin guztiarekin, aparteko garrantzia izaten dute Azaroaren 25ak, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunak, Martxoaren 8ak eta Maiatzaren 17ak (Homofobia, Lesfobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko eguna).

El alumnado de entre 6 y 12 años está trabajando el tema de la igualdad de género y coeducación, a través de cuentos y teatro, con la colaboración de la productora Dar-Dar de Legorreta.

Uno de los objetivos del programa es, hacer frente a la violencia y acoso sexista, y a su vez, potenciar la convivencia basada en la igualdad.

Por su parte, el instituto Beasain está desarrollando el Plan de Prevención de la Igualdad y Violencia de Género (2014-1016). Están trabajando sobre todo con el alumnado, pero también con el profesorado y con padres y madres.

Gazteria Saila

> Udaleko gazteria saileko langileak eta sailetik kudeatzen diren zerbitzuetako (Txelotxe eta Berritsu ludotekak, Eizu gaztelekua, Sorkuntza gunea...) hezitzaile arduradunek, berdintasuna lantzeko saio berezia egin dute udaleko berdintasun teknikariarekin, zerbitzuetan hezkidetzaren gaia landu ahal izateko.

> El personal técnico del departamento de juventud, así como las responsables de las educadoras en ludotecas, Gazteleku..., han realizado una sesión de sensibilización con la técnica de Igualdad, para tratar el tema de la coeducación en los servicios.



Igartzak hazten jarraitzen du

Pasa den apirilean Aldabe Igartzako Monumentu Multzoa kudeatzen hasi zenetik, bisitari eta erabiltzaile kopurua nabarmen igo da. 2013an, 133 bisitari izan ziren guztira. Aurten, berriz, ekainetik urrira, 1.228 bisitari pasa dira, batzuk taldean, besteak bakarka. Beraz, %923 puntuko hazkundea ekarri du kudeaketa berriak. Bisitari horiei, kultur ekitaldietako eta bileretako 1.672 erabiltzaile gehitu behar zaizkie.

Kanpoko panel informatiboa

Igartzako zubiaren eta bidegorriaren albo batean, informazio panel berria jarri da, Monumentu Multzoko ekintzen inguruko informazioa ikusgai izateko.

Igartzako Kultur Mahaia

Urtebete pasa da Igartzako Kultur Mahaia sortu zenetik eta norbanako, elkarte eta eragile ugari erakartzea lortu da, taldea indartuz, ideia berrien sorleku bihurtuz, eta sinergiak aprobetxatuz aukera berriak sortuz.

Igartzako unitate didaktikoak

LHko unitate didaktikoa herriko ikastetxeen elkarlanarekin osatu da. Une honetan, ikastetxeetako ikasleak bisitak egiten ari dira Igartzara, unitatearen funtzionamendua eta balioa ebaluatu ahal izateko. Orain, eskualdeko eta kanpoko ikastetxeetara zabalduko da. DBHko unitate didaktikoa modu berean egiten ari dira eta urte hasierarako bukatuta izatea espero da.



El número de visitas en el Conjunto Monumental de Igartza sigue creciendo gracias al nuevo rumbo que se le ha dado tras el cambio de gestión. Entre junio y octubre se contabilizaron 1.228 visitantes (el año pasado fueron 133) más 1.672 personas que participaron en conciertos, exposiciones, reuniones y conferencias. Además, se ha instalado un panel informativo junto al Puente de Igartza, para informar sobre los actos que se organizan en el Conjunto Monumental. La mesa de cultura de Igartza cada vez tiene más integrantes y se va fortaleciendo, creando nuevas oportunidades, ideas y sinergias. Por último, se ha realizado la unidad didáctica para primaria y se espera tener la unidad de secundaria para principios de año.

●● Enpresak Igartzara erakartzeko lanean

Azken hilabeteetan eskualdeko enprekin lanketa berezia egiteko erabakia hartu da, Igartzan bertan, lan munduko hainbat jardura egiteko eskaintza zabalteko (ikastaroak, bilerak...). Enpresa batzuk hasi dira dagoeneko Igartza erabiltzen. Gainera, Goiekirekin ere Igartza erabiltzeko akordioa sinatuko da urtarrilean, Igartzari lan munduan zabalpen osoa emango zaiola bermatzeko. Akordioa sinatu ondoren, enpresa guztiekin bilkura egingo da Igartzan bertan, eskaintza eta akordioa aurkezteko.

En los últimos meses se está trabajando con las empresas de la comarca para dar a conocer los servicios que ofrece Igartza (por ejemplo, infraestructura para realizar cursos y reuniones). En esa línea, el próximo enero se firmará un acuerdo con Goieki. Y se celebrará una reunión con las empresas de Goierri para presentar la oferta y el acuerdo firmado.

> Gabonetako programazio berezia

- > Gabonekin eta Olentzerorekin lotuta, programazio berezia prestatu dute Igartzan, haurrei eta familiei zuzenduta.
- > **Azaroak 28 eta abenduak 12:** 17:00etan, baserriar jantziak diseinatu eta josteko tailerra.
- > **Azaroak 29:** 11:00etan, Toti Martínez de Lezearen aurkezpen berezia eta euskal mitologian oinarritutako tailerrak izango dira haurrentzat.
- > **Abenduak 19:** 19:00etan, Murumendiko Burdin Aroko herrixkaren inguruko indusketei buruzko hitzaldia. Hurrengo egunean, herriko arkeologia eta mitologia uztertuz, irteera egingo da Murumendira, Burdin Aroko herrixka eta Mariren kobazuloa bisitatzeko.
- > **Abenduak 20ko asteburuan:** Antzerkia burdinolan, eta jauregiko patioan hurrek Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna emateko aukera izango dute.



> Programación especial de navidad

- > Se ha organizado una programación especial dirigida a las familias. El 28 de noviembre y 12 de diciembre se realizará un taller para diseñar trajes tradicionales vascos. El 29 de noviembre, se realizarán talleres sobre mitología vasca, con la visita de la escritora Toti Martínez de Lezea.
- > El 19 de diciembre, se celebrará una charla sobre la aldea de la Edad del Hierro de Murumendi. Al día siguiente se realizará una visita guiada a Murumendi.
- > El fin de semana del 20 de diciembre estarán en Igartza Olentzero y Mari Domingi para recoger las cartas de los más pequeños, y se realizará una obra teatral en la ferrería.



•• «Contactamos con el Ayuntamiento y desarrollamos un proyecto para pedir un local del centro de creación del polideportivo» ••

Ainara Quirós eta Julen Garcia

“Lana egiteko espazio faltarekin geunden eta Sorkuntza gunean lokala eskatu eta utzi digute”

Los locales del polideportivo son lugar de creación. El año pasado se reformaron los locales y es lugar de encuentro y de reunión de diferentes disciplinas de arte: diferentes estilos de música, teatro, arte, moda...

Julen García es alumno de Bellas Artes y Ainara Quirós se dedica a la moda. Desde julio están trabajando duro para llevar adelante sus proyectos.

Zergatik animatu zineten lokala eskatze-ra?

J. G.: Lagunak gara eta egoera berdinean geunden, lana egiteko espazio falta-

rekin. Sorkuntza lokaletako informazioa jaso eta udalarekin harremanetan jarri ginen. Proiektua garatu dugu lokalaren eskaera egiteko eta utzi digute lokala.

Noiztik ari zarete lanean Sorkuntza gunean?

A. Q.: Uztailean sartu ginen Sorkuntza lokalera, eta uda osoa bertan lanean ari-tu gara lantokia ondo aprobetxatzeko.

Zuk, Julen, zer egiten duzu?

J. G.: Arte Ederretako ikaslea naiz eta artista bezala bi proiektu zehatz eraman ditut aurrera. Jazpanarteko erakusketa-rako eta Getxoarten parte hartzeko zen-bait pieza egin ditut.

Pieza plastikoak garatzeko beharrez-koa da lantoki bat izatea; izan ere, lan prozesuak pausa eta lana momentu des-berdinetan garatzea eskatzen baitu.

Eta zuk Ainara?

A. Q.: Moda ikasketak egin ditut, eta azoka desberdinetan parte hartzeko ma-teriala sortu beharra daukat. Arropak, osagarriak, bitxiak... Bestalde, aurkituta-ko altzariak, erretalak eta horrelakoak birziklatu edota zaharberritzen ditut. Sorkuntza askea da nirea. Lanerako ma-terial guztia gordetzeaz gain, piezak lantzeko lekua ere bada Sorkuntza gune-ko lokala.

Askotan musikarekin lotzen da Sorkun-tza gunea.

A. Q.: Nire ustez arazoa hori da, musi-karekin bakarrik lotzen direla baina hitzak berak dioenez zerbait sortzeko lo-kalak dira.

Beste taldeekin harremanik ba al duzue?

A. Q.: Jazpanarteko kideak ere bagara eta bertan beste kideekin bildu izan gara bilerak egiteko.

Udalak berrikuntzak egin zituen Sorkun-tza Gunean. Nolako da zuen lokala?

J. G.: Ondo daude lokalak. Gure lokala handia da eta bakoitzak lan plastikoago bat egiteko aukera dugu, pinturarekin ibiltzeko...

A. Q.: Bestetik mahaiak ditugu, marraz-teko, Interneten informazioaren bila ari-tzeko eta nire kasuan josteko lekua ere badaukat. Lokaletan wifia ere badago. Espazio garbia da. Primeran dago.

Biharko Beasain antolatzekeo prozesua martxan jarri du Udalak

Etorkizuneko Beasain antolatzekeo Plan Orokorra egiten hasteko prozesua hasi du Udalak. 'Gaur Biharko' parte hartze prozesuarekin, herritarrek eta eragileek lanketak egingo dituzte.

Udalak Beasaingo herriaren eta bertako bizilagunen etorkizuneko oinarriak jarriko dituen parte hartze prozesua jarri du martxan: 'Gaur Biharko'. Datozen hilabeteetan epe luzeza begira gure herriak arlo ezberdinen garapenerako izan beharreko estrategiaren inguruan hausnartzeko tarte hartuko dute beasaindarrek. Izan ere, parte hartze prozesuaren izenak dioen bezala, gure herriko arazoak eta aukerak aztertu eta nolako biharko Beasain nahi dugun erabakitzeko unea da.

Plan Orokor bat udalerriko hiri eta landa lurra eta hauetan eman daitezkeen erabilerak antolatzen dituen dokumentu tresna da. Plan Orokor bat idazteko, herria eta herritarren bizitza sakon aztertu behar dira. Nolako gizartea nahi dugun, nolako ekonomia, zer babestu eta zer ustiatu nahi dugun, bizitza modu anitz nola bermatu, eta zein elkarbizitza mota izan behar dugun erabaki behar da, besteak beste.

Diagnostikoa herritarrekin

Diagnostia eginez hasiko da prozesua:



«Plan Orokorra 2015ean aldatzen hastea egokitzen da. Diagnostia egitea lege aldetik aukerazkoa izanda ere, gure ustez ezinbesteko fasea da», dio Koldo Agirre alkateak. Herriko errealitatea aztertzeik hasiko dira, beraz. Udal ordezkarien, teknikarien, langileen, herriko elkardeen, haur eta gazteen eta herritarren iritzia jasoko dira.

Elkarteekin eta ikastetxeekin hasi dira diagnostikoa egiten, eta urtarritetik au-

rrera, herritarren txanda izango da. Martxora bitartean egingo da diagnostikoa.

8-17 urtekoak ere bai

«Prozesua ez da adituentzat». Horrela, herriko ikastetxe guztietako 8 eta 17 urte bitarteko taldeek ere parte hartuko dute. «Ikasle beasaindarrekin batera, eskualdetik datozenen iritzia ere jaso nahi dugu», dio Nicola Foroni teknikariak.

El Ayuntamiento de Beasain ha iniciado el proceso para la elaboración del Plan General de Ordenamiento: El proceso se denomina 'Gaur Biharko'.

Es el momento para estudiar los problemas y oportunidades que ofrece Beasain y decidir cómo queremos que sea Beasain el día de mañana. El Plan General es el documento en el que se establecen y organizan el uso y el aprovechamiento de los terrenos urbanos y rurales.

El proceso se iniciará haciendo un diagnóstico. Hasta marzo se recabará la opinión de representantes municipales, técnicos, personas trabajadoras, asociaciones, niños y niñas, jóvenes y ciudadanía.

Urtarrila-otsaila herritarrekin

- > Urtarrilean eta otsailean egingo dira herritarrekin bilerak.
- > Auzoka: Landa eremua, Igartza, Ezkiaga eta erdigunea.
- > Gaika: Ingurumena eta lurralde ikuspegia, espazio publikoa eta mugikortasuna, ekipamenduak eta zerbitzuak, garapen ekonomikoa, eta etxebizitza.

Hace falta estudiar en profundidad el municipio y sus habitantes para redactar un Plan General. Qué tipo de sociedad queremos, qué tipo de economía, qué es lo que queremos proteger y qué explotar, cómo garantizar el modo de vida plural... hace falta decidir qué tipo de convivencia queremos.

Las reuniones se realizarán por barrios y por temas: medio ambiente y territorialidad, espacio público y movilidad, equipamientos y servicios, desarrollo económico y vivienda.

El proceso no es para personas expertas, sino para todas la personas de Beasain.

> **Gaur Biharko prozesuaren egutegia**

> **Calendario del proceso Hoy para Mañana**

> **Abenduan:** Elkarrekin zuzeneko harremanak egingo dira prozesuko bileretara gonbidatuz eta horrela, prozesuarekiko beraien ekarpenak jasoz eta inplikazioa lortuz. Martxan dauden foroekin ere bilerak egiten ari dira (berdintasuna, agenda 21...). Bestetik, haurren parte hartzea bermatzeko, eta beraien ekarpenak jasotzeko, ikastetxeekin lanketak burutuko dira.


> **Urtarrila-Otsailan:** Herritarrekin bilera ireki ezberdinak egingo dira, bai auzoka, baita gaika ere. Talde bakoitzarekin bi bilera egingo dira, herritarrek hausnarketa egin eta beraien ekarpenak egin ditzaten.

> **Martxoan:** Aurreko fasean jasotako ekarpen guztiekin parte hartze prozesuaren txostena idatziko da eta jasotako gainontzeko datuekin eta hausnarketa teknikoekin batera, Plan Orokorren diagnostikoa idatziko da.

> **En diciembre:** Se realizarán reuniones con las asociaciones y con los foros existentes (agenda 21, Igualdad...) para invitarles a participar en el proceso y para recabar sus aportaciones. En los centros de enseñanza se trabajará con el alumnado.

> **En enero-febrero:** Se realizarán reuniones abiertas con la ciudadanía en diferentes barrios y sobre temas específicos.

> **En marzo:** Se redactará un primer documento del diagnóstico del Plan General, basado en las propuestas recabadas en el proceso y en la reflexión técnica.



> **Elkarreak**

> **Asociaciones**

> Beasaingo elkarrekin hasiko da 'Gaur Biharko' parte hartze prozesua eta hauek egiten duten lana handia izanik, ezinbestekoa izango da beraien ekarpenak jasotzea.

> Elkarreak ezagutzen dute inork baino hobeto beraien arloko errealitatea, eta ekarpenak ezinbestekoak izango dira prozesu honetarako.

> Elkarreentzako zehaztu diren bilera egunetatik, elkarre bakoitzak ondoen datorkion eguna aukeratu beharko du.

Abenduan bilerak

Elkarrekin lau bilera egun izango dituzte aukeran, prozesuaren nondik norakoak ezagutu eta ekarpenak egiteko: abenduaren, 2an, 4an, 5ean eta 10ean, 18:30ean, Udaletxeko batzar aretoan.

> El proceso empezará con las asociaciones. Sus aportaciones serán indispensables ya que el trabajo que realizan es muy importante para Beasain y conocen de primera mano la realidad del municipio.

> Se realizarán reuniones con las asociaciones el 2, 4, 5 y 10 de diciembre, a las 18:30 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento. Cada asociación podrá elegir el día que mejor le venga.

> **Ikastetxeak**

> **Centros de enseñanza**

> Beasaingo ikastetxe guztiek parte hartuko dute Plan Orokorreko diagnostikoa egiteko prozesuan.

> 8 eta 17 urte bitarteko taldeak aukeratu dira horretarako, aniztasuna kontuan hartuta: neska-mutil kopurua, bertan jaiotakoak eta kanpotik etorritakoak, ezinduak, herrigunean eta auzoetan bizi-tzea....

> Mugikortasuna, aisialdi ohiturak, ekipamenduak, kontsumoa... bezalako gaiak landuko dituzte.

> Gurasoek inkesta bana jasoko dute, gaur egungo eta garai bateko Beasain konparatu eta elkarrekin etorkizunerako proposamenak egiteko.



> Todos los centros de enseñanza participarán en este proceso. Se han elegido grupos de entre 8 y 17 años, teniendo en cuenta la diversidad en número de chicas y chicos, personas nacidas en Beasain y las que han venido de fuera... Tratarán temas como movilidad, equipamientos, consumo, hábitos de ocio...

> Los padres y madres del alumnado recibirán una encuesta para que reflexionen sobre diferentes temas con sus hijos e hijas, y realicen propuestas para el futuro.

Euskararen normalkuntzan aurrerapausoak

Euskara arloko zinegotzia den Garbiñe Zurutuzak dioenez, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman nahian buru belarri ari da lanean Beasaingo Udala. Horretarako, dokumentu ezberdinak landu dira, besteak beste: euskararen Udal ordenantza, euskararen erabileraren neurketa egin da kaleetan eta ikastetxeetako patioetan, administrazioko erabilera plana, eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) 3. plangintzaldia onartu berri du Udalbatzak, 2014-2017 urteetarako.

Azken horren jarraipena eratu berri den Euskararen aholku batzordeak egingo du, urtero egingo den euskararen kudeaketa planaren bidez. Aholku batzordean herriko eragile, elkarte, norbanako eta erakunde desberdinak izango dira. Alkatea izango da bertako lehendakaria.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren dokumentua ere irekia da, herritar guztientzat egindako plana baita, herriko eragile ezberdinen iritziekin eta ekarpenekin osatuz joango dena, eta horretarako guztion parte hartzea behar-beharrezkoa da. (Dokumentuak ikusgai www.beasain.org/orrian). Garbiñe Zurutuzaren esanetan, «euskararen gaiak guztion ahalegina eskatzen du, gure hizkuntza dakitenena eta ez dakitenena. XXI. mendean gaude, eta garai berri hauetan konsziente izan behar dugu hizkuntza ezberdinen arteko elkarbizitzak duen garrantziaz, baina ahaztu gabe euskararen normalizazioaren bidean oraindik asko dagoela egiteko».

El Ayuntamiento de Beasain está haciendo un gran esfuerzo por impulsar el euskara. Entre los documentos que ha elaborado se encuentra el plan de acciones ESEP. La corporación municipal acaba de aceptar la tercera planificación, para los años 2014-2017.

El seguimiento de este plan lo hará la comisión asesora del euskara donde se juntan asociaciones y organizaciones; el presidente será el Alcalde.

Según recalca la concejala Garbiñe Zu-

•• Hiru helburu estrategiko

Euskararen ondorengoetaratzea: irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia dira helburu estrategiko horren oinarri, belaunaldien arteko lotura ziurtatzeko. Familia bidezko transmisioak garrantzi handia du, euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio kanpainak egingo dira, hizkuntza ohituretan eragiteko, hausnarketarako, hizkuntza jarrera eredu-garriak identifikatu eta sustatzeko...



Euskalduntze alfabetatzean ere, talde naturalei begira (kuadrilak, familiak...), ezagutza areagotzeko estrategiak garatuko ditu Udal Euskaltegiak, eta ikas-prozesua azkartzeko eta euskarazko harremanak sendotzeko aukerak eskainiko zaizkie euskara ikasi nahi duten guztiei.



Euskararen erabilera: euskara jakiteak ez du erabilera ziurtatzen, erabilera, ordea, behar-beharrezkoa da. Egunerokotasunean naturaltasunez herrian euskaraz bizitzeko helburuarekin, administrazioan, merkataritza arloan, aisian, kirolean,... erabiltzea beharrezkoa da.

Arlo sozioekonomikoan, Goierriko Enpresen Euskara Batzordea osatzen duten Ingudeako kideekin batera, Udalak enpresetan euskara planak sustatuko ditu.

Aisia eta kirolean, talde naturaletan eraginez hizkuntza jarreretan eragiteko prozesuak abian jarri dira. Begiraleei hizkuntza ohituretan eragiteko formazioa emango zaie, motibazioa landuz, hizkuntzaren erabilera aktiboagoa lortzeko.

Euskararen kalitatea eta elikadura: herriko kultura eta tradizioa zaintzea, eskualdeko euskarazko hedabideak bultzatzea euskararen normalizazioan duten garrantzia kontuan izanda, euskarazko kultur-gintza bultzatzea Igartzako Kultur Mahaiaren bidez, Udal Biblioteka euskaraz ondo hornituta izatea, irakurzaletasuna bultzatzea irakurketa tailerraren bidez....



rutuza «el tema del euskara requiere el esfuerzo de todas las personas, tanto de las que lo saben como de las que no».

Tres objetivos estratégicos

Uno de los objetivos de este plan es asegurar la transmisión del euskara. Se están realizando diversas campañas para sensibilizar a la ciudadanía de la importancia del euskara, y también se está trabajando en el ámbito de la alfa-

betización, ya que, es fundamental para asegurar la transmisión.

Otro objetivo es el de la utilización. Para lo cual, se está trabajando junto con las empresas para realizar planes de euskara en las mismas. En el ámbito de ocio y deporte, se ha ofrecido formación para impulsar la utilización.

Para asegurar la calidad y el sustento del euskara, se fomentará la cultura en euskara y los medios de comunicación en euskara, entre otras actividades.

Abenduak 3: Euskararen Eguna

Nazioarteko Euskararen Eguna ospatuko du aurten ere Beasaingo Udalak abenduaren 3an. Ohiko Mintzodromoaz gain, 'Euskera, ospela eta egutera' dokumentala ere eskainiko dute.

Euskarari egin diezaiokegun omenaldirik onena euskara noiznahi eta nonahi erabiltzea da. Beasaingo Udala etengabe ari da euskararen aldeko urratsak ematen eta abenduaren 3an, Nazioarteko Euskararen Eguna, plaza azpiko ekitaldietan parte hartzeko deia luzatzen du.

Mintzodromoa

Batetik, euskara ikasten ari direnak edo euskara hobetu nahi dutenak euskara dakitenekin elkartuko dira plaza azpian, 19:00etan, tertulia giroan.

Dokumentala

Bestetik, Euskal Memoriak eta Aldundiak ekoiztutako 'Euskera, ospela eta egutera' dokumentala eskainiko dute 18:30ean, plaza azpian. Dokumental horretan, historian zehar euskarari egin zaion jazarpena eta euskal kulturgintzak jaso duen errepresioa jasotzen da.



El 3 de diciembre se celebra el Día Internacional del Euskara. El mejor homenaje que se le puede hacer al euskara es utilizarlo.

Este año el Ayuntamiento ha organizado dos actos para este día. Por un lado, como es habitual, se juntarán bajo

la plaza San Martín, las personas que están estudiando euskara con las que ya lo hablan. Por otro lado, se emitirá el documental 'Euskera, ospela eta egutera'. En él se narra el acoso que ha sufrido el euskara en la historia y la represión que ha sufrido la cultura vasca.

Mintzalagun gehiagoren bila

Hizkuntza bat hitz eginez ikasten da. Hizkuntza bat ikasten ari denak hizkuntza hori hitz egitea erraztuko dion norbait ondoan izanda errazagoa da hitz egiten jartzea. Mintzalagun egitasmoa horretarako oso baliagarria da. Beasainen, badira 30 euskaldun zahar eta euskara ikasle inguru elkartzen dira astero, euskaraz hitz egiteko. Egoera desberdinetan elkartzen dira Mintzalagunak: Ibilalditxo bat egiteko, kafea hartzeko... Aitor Larburu Udal Euskaltegiko lehendakariaren arabera, «bakoitzak bere ingurunea aprobetxatuz dezake mintzalagun lana egiteko. Aitamek, adibidez, parkea bera aprobetxatu dezakete elkartzeko eta euskaraz hitz egiteko».

Izena emateko aukera

Interesatuak izena eman dezakete Udaltxeko kultura eta euskara sailean, Udal Euskaltegian edo AEK-n.

Mintzalaguna izan nahi duzu?

Quieres ser Mintzalaguna?

*Eman izena eta
bizi euskaraz*

*Apúntate y
vive en euskara*

Udaleko kultura eta euskara Saila:
943 02 80 63.

Udal Euskaltegia: 943 02 81 00.
Goiztiri AEK: 943 88 93 40.

Dpto. de cultura y euskara del
Ayuntamiento: 943 02 80 63.

Udal Euskaltegia: 943 02 81 00.
Goiztiri AEK: 943 88 93 40.

ebpn@beasain.net - euskaltegia@beasain.net - beasain@aek.org

Un idioma se aprende hablando. El proyecto Mintzalaguna sirve para que personas que están aprendiendo o quieren mejorar el euskara tengan espacios para hablarlo. Paseando, tomando café o en un parque, cada semana, unas 30

personas quedan para hablar en euskara. Las personas interesadas en participar en esta iniciativa pueden apuntarse en el Departamento de cultura y euskara del Ayuntamiento, en el Euskaltegi Municipal o en AEK.

Liburu azokaren 25. urteurrena

A tzoko kontua dirudien arren, 25. edizioa beteko du aurtengoan Euskal Liburu eta Disko Azokak Beasainen. Hasiera-hasieratik Goiztiri AEK aritu da gidaritza lanetan eta alboan beti izan ditu Udala eta herriko zenbait gizarte eragile (Mirentxu, Udal Euskaltegia, Aurtzaka, ikastetxeak, norbakoak...).

Herri barruko indar metaketaz gain, eskualdeko gainontzeko liburu azokekin ere bat egin eta 'Azokak batzen gaitu' lelopean, elkarlanean ari dira azken urteotan.

Abenduaren 12, 13 eta 14an izango da zabalik aurtien liburu azoka eta azkeneko urteei jarraiki, udaletxe azpiko plazan izango da. Bertan ez dira falta 2014an argitara emandako liburu nahiz CD edota jokoak. Eta nola ez, erakusgai izango dira euskarazko azken berrikuntza guztiak, eta baita salgai ere.

Gabonak hortxe ditugu ate joka eta inori oparia egiteko asmotan ibiliz gero, zer hobeto euskal kultura oparitzea baino. Beasaingo Udalaren laguntzarekin, %15eko beherapena izango duzue bertan eskuratutako produktuetan. Aparteko zozketa ere izango da: euskal kultura opari.



La feria de libros y discos vascos celebrará su 25 aniversario. Desde el principio el euskaltegi Goiztiri AEK ha sido quien ha estado al mando de ella, con el apoyo y colaboración del Ayuntamiento, Mirentxu, Euskaltegi Municipal, Aurtzaka, centros de enseñanza... La feria se celebrará entre el 12 y 14 de diciembre, bajo la plaza San Martín, desde la mañana hasta la tarde. Habrá oportunidad conocer y comprar las últimas novedades de la literatura y música vasca. Gracias a la colaboración del Ayuntamiento, un año más, todos los productos tendrán un descuento del 15 %. Por lo tanto, una buena oportunidad para regalar cultura vasca.

●● Egitaraua

Abenduak 12, ostirala: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00

11:30ean, Olenzero marrazki lehiaketako sari banaketa, 17:30ean, Literatura tailerra Irati Goikoetxeak gidatuta, eta 19:00etan 'Norantz joan beharko luke euskalgintzak?' mahai ingurua Udal Bibliotekan, Mikel Irizarrekin (Topagunearen lehendakari ohia) eta Iñaki Lasarekin (Kontseilua).

Abenduak 13, larunbata: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

12:00etan haurrentzako jolasak, 12:30ean Goierriko Bertso Eskolako eta Musika Eskolako trikitilarien saioa, 18:00etan, Beasaingo idazleekin solasean eta 19:00etan herriko musikari gazteekin solasean.

Abenduak 14, igandea: 11:00-14:00 eta 17:00-19:00

goizean zehar, IrakurTour lehiaketa eta jolasak.

Gazteen aisialdiko lokalen arautegia

A ste honetan bertan Beasaingo Udalak eskutitz bana bidali die lokalen erabiltzaileei, adin txiki-ko erabiltzaileen gurasoei, lokaletako jabeei eta 2014ko martxotik maiatzera bitartean antolatu zen prozesu parte hartzailean aritu ziren bizilagunei, gazteen aisialdiko lokalen arautegiaren zirriborroa igortzeko. Abenduaren 19ra arteko epea izango dute arautegiari proposamenak eta ekarpenak egiteko.

Alderdi politikoei

Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiei ere aurkeztu zaie arautegia eta hauek ere egin ahal izango dituzte ekarpenak.

Proposamenak

Ekarpenak egiteko lau bide daude:

> Idatziz: Gazteria Sailerari bidali.

> Telefonoz: 943 028 066.

> Posta elektronikoz: gazteria@beasain.net.

> Modu presentzialean udaleko gazteria sailean.

> Hay cuatro modos para enviar aportaciones

> Por escrito: enviar al Departamento de Juventud.

> Por teléfono: 943 02 80 66.

> Por e-mail: gazteria@beasain.net.

> A modo presencial, en el Departamento de Juventud.

Esta misma semana el Ayuntamiento ha enviado el borrador del reglamento de los locales juveniles de ocio a las personas usuarias de los locales, a sus padres y madres en caso de ser menores, a las personas dueñas de los locales y a las que participaron en el proceso participativo. Hasta el 19 de diciembre se podrán hacer nuevas propuestas.

Los partidos políticos también tendrán oportunidad de hacer sus aportaciones.

Zinegaz, abenduaren 20an, Trash filmarekin



Gazteei eta nerabeei zuzendutako Zinegaz programaren lehen saioa abenduaren 20an izango da, 19:30ean, Usurbe Antzokian. 'Trash' filma emango dute. Abenduaren 22an, gainera, filmaren inguruko lanketa egingo dute Eizu Gaztelekuan. Inguruko herrietako Gaztelekuetako nerabeak gonbidatuko dituzte. Eizu Gaztelekua, Goikus, Txilibutxof eta Udalak antolatutako egitasmoa da Zinegaz.

Eizu Gaztelekua, Goikus, Txilibutxof y el Ayuntamiento han organizada la primera sesión de la iniciativa Zinegaz para adolescentes: el 20 de diciembre, a las 19:30, emitirán la película 'Trash'.

Beasain Institutuak Eskola Jasangarriaren saria jaso du

Azaroaren 5ean Beasain Institutuak Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso zuen Donostiako Kursaal jauregian. Ziurtagiri hori 2009-2010 ikasturtean ere eskuratu zuten. Ingurugelen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian banatu zituzten sariak. Beasaingo Udalak Beasain Institutua zoriondu nahi du.

El Instituto Beasain ha obtenido el certificado de Escuela Sostenible. En el curso 2009-2010 también consiguieron dicho premio. La entrega de premios se realizó el 5 de noviembre en el centro de Kursaal de Donostia. Mari Mar Celaya, presidenta de la comisión de medioambiente del Ayuntamiento, estuvo en el acto junto con la delegación de Beasain Instituta.

50 Errigorako saskitik gora saldu dira Beasainen

Nafarroako Erriberako ikastolei, euskalgintzari eta nekazariei laguntzeko, Nafarroako produktuz osatutako 50 Errigora saskitik gora saldu dira Beasainen.

En Beasain se han vendido más de 50 cestas de Errigora, con el objetivo de ayudar a las ikastolas y euskaltegis de la Rivera Navarra.



Astigarretako lanak

Astigarretarrek San Gregorio ermitari zutik eusteko eskariari erantzunez, Udalak ermitaren teiltua berritu eta kanpotik zein barrutik margotu du. Latxe eta Erromategi baserrietako ur hornikuntza ere egin da.

Astigarretako plazan ere egin dituzte bi egokitzapen lan. Batetik, komun publiko egokitu jarri dute erabilpen kontzertatua duen lokal batean. Plazako euri urak ere kanalizatu dituzte eta bide batez iturri publikoa ere berritu da.

En Astigarreta se han realizado diferentes actuaciones. Por un lado, se ha retejado y se ha pintado, tanto el interior y el exterior de la ermita San Gregorio. Por otro lado, se ha ejecutado la red de abastecimiento de agua a los caseríos Erromategi y Latxe. En la plaza, se ha puesto un baño público adaptado en un local de uso concertado, se han canalizado también las aguas fluviales de la plaza y se ha reformado la fuente pública.



Lizeoko eta bideetako lanak

Alkartasuna Lizeoko goikaldeko euri urak eta aurkitu berri duten iturburu kanalizatu ditu Udaleko brigadak, betidanik izan duten ur arazoa konpondu nahian.

Bestetik, baserri bideak garbitzen ere ari dira brigadako langileak. Eguraldi txarra datorrenerako, urak bere bidetik joan daitezten.

En la zona alta del Liceo la brigada municipal ha canalizado tanto las aguas de lluvia, como la del manantial descubierto. Por otra parte, los trabajadores de la brigada están limpiando los caminos vecinales. Se han limpiado las cunetas para canalizar las aguas, y evitar que las aguas vayan libres, se desborden y provoquen desprendimientos.



•• Las actividades se llevan a cabo en Txolarte gracias a las personas voluntarias; son parte de la cuadrilla ••

Txolarte

“Txolarteren helburua, adimen urritasuna duten pertsonen arteko harremanak lantzea da»

El Programa Txolarte de Atzegi lo componen clubes de tiempo libre donde se desarrollan actividades de ocio dirigidas a personas con discapacidad intelectual mayores de 16 años y realizadas en fin de semana.

Atzegi elkarteak 1960 urteaz geroztik ari da, adimen urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea hobetzeko lanean. Tresna horietako bat Txolarte da; 1971n sortu zen Gipuzkoan lehenengo Txolarte taldea. Patriciak eta Anek eman digute Txolarteren berri.

Zer da Txolarte?

Patricia: Txolarte programa, Atzegik (adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak) eskaintzen dituen programetarikoa bat da. Bere helburu nagusiak, adimen urritasuna duten pertsonen arteko harremanak lantzea da; baita inguruko harreman sozialetan parte hartzea ere ekintza ezberdinak eginez. Dibertsioa garapen pertsonala lantzeko erabili eta pertsona guztiak aisialdia edukitzeko eskubidea bermatu nahi dira.

Noiz elkartzen dira?

P: Larunbatetan elkartzen dira urritik ekainera bitarte. Abuztuan ere 12 egunetako oporraldietan parte hartzeko aukera dute.

Zein motako ekintzak egiten dituzue?

P: Eguraldiaren baitan izaten da. Txarra

eginez gero, txolartean bertan geratzen dira mahai jolasak, puzzleak, txotxongi-lo tailerra, dantza eta lokalean egiten diren jaiak, merienda, gabonetako apainketa, lagun ezkutuaren eguna, ekintzen programazioa, eskulanak... egiten. Hala ere, kanpora ateratzen dira normalean, poteoa, paseoak, bisita kulturalak... egitera. Ekintza puntual bezala gabonetako afaria, famili, erabiltzaile eta boluntarioekin bazkariak, txolarte eguna, olentzero... antolatzen dira.

Urtero jaialdia egiten duzue jendaurrean. Zein helburu du?

P: Urtero antolatzen da gabonetako ekitaldia. Urritik abendua bitarte hau antolatzen ibiltzen dira eta txolarteko ekintzen parte bilakatu da. Helburu nagusia ongi pasatzea da txolarteko kide guztiekin eta ondoren, hau jendaurrera eramateko ideia azaldu zen.

Boluntarioen lanari esker antolatzen da Txolarte, ezta?

P: Bai, boluntarioen papera oso garrantzitsua da helburua lortzeko. Boluntarioak lagun taldeko parte bilakatu dira eta beraiek gabe ezin izango litzateke aurrera eraman.

Zu, Ane, noiztik zabilta Beasaingo Txolarten boluntario bezala?

Ane: Lau urte daramat. Eremu horretako ikasketak ditut eta horregatik etorri nintzen Txolartera. Ahal dudan guztietan etortzen naiz. Dena den, boluntario izateko ez da ikasketa berezirik behar. Edozeinek ditu ateak zabalik. Gogoia izatea nahikoa da.

Beasaingo Txolarten zenbat boluntario eta erabiltzaile zaudete?

A: Begiraleak bederatzi gara eta erabiltzaileak 25. Goierrikoak gara denak. Kuadrilla bat bezala gara. Larunbat arratsaldeko lauak iristeko zain egoten gara denok. Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin. Oso aberasgarria da Txolarten lan egitea.

Función especial
El 19 de diciembre, a las 18:00 en Usurbe antzokia, presentarán la función especial de navidad.